**4.**

**B saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru Lege proposamena, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzeko martxoaren 26ko 3/2021 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikuluak aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzeko martxoaren 26ko 3/2021 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du (10-21/PRO-00007).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzeko martxoaren 26ko 3/2021 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru Lege proposamena, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzeko martxoaren 26ko 3/2021 Foru Legea aldatzekoa.

HITZAURREA

Martxoaren 26ko 3/2021 Foru Legearen parte izan dadin eta foru legearen artikuluek aipatzen dituzten eranskinei publizitatea eman dakien aurkezten da foru lege hau, foru legearen testu osoari segurtasun juridikoa emanez.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzeko martxoaren 26ko Foru Legearen aldaketa.

Honen bidez, foru lege horretan jasotzat emanen dira, bertan ezarritako xede eta ondorioekin, honi erantsita doazen eranskinak, Ietik Vera bitarteko zenbakiz izendatuak.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2021eko apirilaren 1ean hartuko du indarra.

## I. ERANSKINA
## NAFARROAKO POLIZIEN LANPOSTUAK BALORATZEKO ESKULIBURUA

### IRIZPIDEA - ERANTZUKIZUNA.

Irizpide honek honako hauek hartzen ditu kontuan:

A. Kudeaketaren gaineko erantzukizuna.

B. Ekimenaren gaineko erantzukizuna.

C. Pertsonen eta harremanen gaineko erantzukizuna.

D. Isilpeko datuen gaineko erantzukizuna.

**A. Kudeaketaren gaineko erantzukizuna.**

Lanpostu jakin batean egin beharreko lanek antolaketan duten garrantzia neurtzen du faktore honek. Lanpostua okupatzen duenaren ekintzek eta erabakiek unitatearen ibilbidean (helburuak, zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea, baliabide ekonomikoak, etab) izan ditzaketen ondorioen arabera ebaluatzen da garrantzi hori.

Ondorio horiek baloratzeko, haien eragina hartzen da kontuan okerreko jarduketen kasuan -egiten duten kaltea–, bai eta jarduketa horien probabilitatea ere.

**A.1.-** Egin daitekeen kaltea (ondorioak).

1.1.- Arina.

Kalteak ekar dezakeen galera, hala nola denbora edo materiala galtzea. Galerak halako eragina du kanpoan eta epe laburrean zuzentzen ahal da.

1.2.- Ertaina.

Kalteak emaitza negatiboak ekartzen ahal dizkio zuzenean zerbitzuari edo hirugarrenen aurreko sinesgarritasunean. Oihartzuna izan dezake kanpoan eta denbora behar da ondorioak konpontzeko.

1.3.- Larria.

Kalteak galera larriak ditu Poliziarentzat. Zaila izan daiteke okerreko jarduketa baten ondorioak konpontzea, eta erakundearen misioari berari egiten dio kalte.

**A.2.-** Probabilitatea.

2.1.– Apala.

Zail da lanpostua okupatzen duenaren ekintzek ondorio negatiboak izatea. Gertatuz gero, badaude gainbegiratzeko dispositiboak, haiek saihestu edo/eta neutralizatzen ahal dituztenak eta, hortaz, kaltearen probabilitatea murrizten dutenak.

2.2.- Ertaina.

Lanpostua okupatzen duenaren ekintzek halako probabilitate bat dute ondorio negatiboak sortzeko. Kontroleko dispositiboen edo/eta goragoko bitartekoen zuzeneko ekintzaren bidez arintzen dira, kaltearen probabilitatea murrizten baitute.

2.3.- Handia.

Lanpostua okupatzen duenaren ekintzek probabilitate handia dute ondorio negatiboak sortzeko, okerreko jarduketa baten kasuan. Kontroleko dispositibo urriak daude edo bat ere ez.

**B. Ekimenaren gaineko erantzukizuna.**

Faktore honek lanpostua okupatzen duenari eskatzen zaion autonomia maila ebaluatzen du bere eginkizunak bete behar dituenean eta, haiek direla-eta, erabakiak hartu behar dituenean. Erantzukizuna zehazteko, lanpostuari dagozkion zereginen barietatea baloratzen da, bai eta haiek gauzatzeko okupatzaileak duen autonomia maila ere.

**B.1.-** Zereginen barietatea.

1.1.- Arrunta.

Ohiko zereginak betetzea halako barietate baten barrenean, eta irtenbidea bilatzea aukera gutxi izanik hautatzeko, eta aurrekari, protokolo edo arauetan oinarrituta.

1.2.- Handia.

Zereginek zenbait aldaera dituzte eta irtenbidea bilatzeko zenbait aukera daude hautatzeko, eta ez nahitaez protokolo, arau edo aurrekarietan jasota.

1.3.- Oso handia.

Zereginek aldaera asko dituzte, jarraibideak ez daude lehendik ezarrita eta ondorioak zehaztu gabe daude; hortaz, sakon analizatu eta aztertzera behartzen dute. Maila goreneko proposamen eta gomendioak egiten dira.

**B.2.-** Autonomia.

2.1.- Arrunta.

Lanpostuak badu autonomia jarraibide jakin batzuen bidez normalizatutako zenbait prozesuren barrenean, eta batzuetan egokitu behar izaten dira bere eskumenen barrenean. Arau, jarraibide edo agindu jakin batzuk interpretatzeko askatasun tarte baten barrenean hartzen dira erabakiak. Bada kontrola lana bukatzean.

2.2.- Handia.

Lanpostuaren autonomia handia da. Okupatzaileak jarraibide zabalak ditu bere jardueran,

gertuko gainbegiralerik gabe. Proposamenak eta gomendioak egiten ditu, eta metodoak eta prozedurak ezartzen. Abian jartzen ditu ekintzak edo programak, eta horiek eragin handi samarra dute unitate bateko baliabideen kudeaketa eraginkorraren gainean.

2.3.- Oso handia.

Okupatzaileak autonomia handia du, bai eta erabakitzeko ahalmen handia ere. Goreneko eragina du estrategiaren, plangintzaren, kudeaketaren eta baliabideen gainean. Ez du aldez aurreko jarraibiderik, emaitzei buruzkoak izan ezik.

**C. Pertsonen eta harremanen gaineko erantzukizuna.**

Zereginak betetzeko orduan, harreman pertsonalak, erakundearen barrenean zein kanpoan, izan behar dituzten lanpostuen okupatzaileen erantzukizuna neurtzen du faktore honek. Harremanen helburua eta garrantzia eta haien zailtasuna aintzat hartuta baloratzen da erantzukizun hori.

**C.1.-** Harremanen garrantzia.

1.1.- Arrunta.

Harreman pertsonalak, helburua polizia-lan jakin batzuk egitea izanik, gehienetan lan ingurune hurbilenean edo/eta herritarrenganako zuzeneko arretaren ondorioz.

1.2.- Handia.

Baliabideak kudeatzea eta polizia ekintzak planifikatzea helburu duten harremanak, bai lan ingurunean, bai beste eremu batzuetan, informazioa trukatzeko edo/eta poliziaren barrenean zein kanpoan koordinatzeko.

1.3.- Oso handia.

Erakunde, zuzendaritza eta unitateekin Foruzaingoaren maila eta garrantzi handiko estrategiak etengabe ezartzea edo/eta gauzatzea helburu duten harremanak. Horiek lanpostuaren misioari berari loturik daude.

**C.2.-** Harremanen zailtasuna.

2.1.- arrunta.

Ohiko lan harremanak, aldez aurretik plangintzarik behar ez dutenak, informazioa zabaltzea edo/jasotzea helburu dutenak.

2.2.- handia.

Harremanek aldez aurreko prestakuntza behar dute emaitzak lortzeko, eta haien edukiak informazioa zabaltzeaz edo/jasotzeaz gain, integratzea ere eskatzen du.

2.3.- Oso handia.

Harremanekin landu beharreko edukia zehatzmehatz eta estrategia baten barrenan planifikatzea eskatzen du, solaskideekin akordioak lortuko badira eta haien jarrera aldatuko bada, egoerak hala eskatuz gero.

**D. Isilpeko datuen gaineko erantzukizuna.**

Bere zeregina dela eta, lanpostu baten okupatzaileak isilpeko informazioa ezagutzean hartzen duen erantzukizuna baloratzen du faktore honek. Informazio hori bere garrantzi mailaren araberakoa da, hau da, hura zabaltzeak eragin dezakeen kaltearen araberakoa. Foruzaingoan, informazioa eskuratzeko baimenen bitartez kudeatzen da garrantzi hori.

1.1.– Apala.

Informatika-aplikazioetan sartzeko ematen diren baimenak informazio orokorrerako dira, edo kontsulta isolatu baterako. Lanpostu askok partekatzen dute sarbidea.

1.2.- Ertaina.

Xehetasunak dituen informaziorako ematen dira baimenak, eta lanpostu eta unitate jakin batzuek bakarrik dute sarbidea.

1.3.- Handia.

Informatika-aplikazioetan sartzeko ematen diren baimenak informaziorako dira, datu bereziki mingarri eta berariazkoak erabilita.

**Balorazio taula.**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A) KUDEAKETAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNA | A.1. ERAGIN DEZAKEEN KALTEA | ARINA | ERTAINA | LARRIA |
| | | 1 | 2 | 3 |
| | A.2. PROBABILITATEA | APALA | ERTAINA | HANDIA |
| | | 1 | 2 | 3 |
| B) EKIMENAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNA | B.1. ZEREGINEN BARIETATEA | ARRUNTA | HANDIA | OSO HANDIA |
| | | 1 | 2 | 3 |
| | B.2. AUTONOMIA | ARRUNTA | HANDIA | OSO HANDIA |
| | | 1 | 2 | 3 |
| C) PERTSONEN ETA HARREMANEN GAINEKO ERANTZUKIZUNA | C.1. HARREMANEN GARRANTZIA | ARRUNTA | HANDIA | OSO HANDIA |
| | | 1 | 2 | 3 |
| | C.2. HARREMANEN ZAILTASUNA | ARRUNTA | HANDIA | OSO HANDIA |
| | | 1 | 2 | 3 |
| D) ISILPEKO DATUEN GAINEKO ERANTZUKIZUNA | D.1. ISILPEKO INFORM. ESKURATZEKO GRADUA | APALA | ERTAINA | HANDIA |
| | | 2 | 4 | 6 |

| GRADU ESLEIPENA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1. GRADUA | 8 | 1 | 10 | 8 - 9 |
| 2. GRADUA | 10 | 2 | 20 | 10 - 11 |
| 3. GRADUA | 12 | 3 | 30 | 12 - 13 |
| 4. GRADUA | 14 | 4 | 40 | 14 - 15 |
| 5. GRADUA | 16 | 5 | 50 | 16 - 17 |
| 6. GRADUA | 18 | 6 | 60 | 18 - 19 |
| 7. GRADUA | 20 | 7 | 70 | 20 - 21 |
| 8. GRADUA | 22 | 8 | 80 | 22 - 22 |
| 9. GRADUA | 23 | 9 | 90 | 23 - 23 |
| 10. GRADUA | 24 | 10 | 100 | 24 edo gehiago |

## II. IRIZPIDEA - DEDIKAZIOA.

Lanpostuaren eginkizunak beteko badira, hari lotutako prestasuna baloratzen du irizpide honek. Lanaldi irregularrak egin behar ote diren hartzen du kontuan, egutegian ezarritakotik kanpo, hartan aldaketak eginez edo/eta lokalizatuta egon beharra.

**1.1.- Dedikazio arrunta.**

Gradu hau esleituko zaie lanpostuei haientzat ezarritako egutegiak/karteldegiak ezin badu aldaketarik izan, non ez den inoizkako deialdi batzuetan zerbitzuaren beharrak betetzeko. Lanpostua betetzeko ez da dedikazio edo malgutasun berezirik behar, edo Polizia lanpostu guztiek berez dutenaren gainetik.

**1.2.- Dedikazio handia.**

Gradu hau esleituko zaie lanpostuei haientzat ezarritako egutegiak/karteldegiak aldaketarik izaten ahal badu, non ez den oporraldian. Zehazki, aurreko atalean aipatu deialdiez gain, zerbitzuaren beharrak direla-eta sarrerako edo irteerako egutegian aldaketak edo gorabeherak daudelako gerta daiteke.

**1.3.- Dedikazio oso handia.**

Gradu hau esleituko zaie lanpostuei, baldin eta ezarritako egutegiaz/karteldegiaz gain, aurreko graduetan deskribatutako prestasuna baino handiagoa behar badute eginkizunak betetzeko. Lanpostua betetzeko egutegi malgua behar da edo/eta lanaldiak aldatzea, erantzukizunak hala eskatuta, eta uneoro egon behar da lokalizatuta eta prest, oporraldian izan ezik.

**Balorazio taula.**

| | ARRUNTA | HANDIA | OSO HANDIA |
|---|---|---|---|
| A) EGUTEGI NORMALIZATUA<br>B) LOKALIZAZIOA ETA MALGUTASUNA, LANALDITIK KANPO<br>C) ERABATEKO DEDIKAZIOA | 1 | 2 | 3 |

| GRADU ESLEIPENA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1. GRADUA | 1 | 1 | 10 | 1 - 1 |
| 2. GRADUA | 2 | 2 | 20 | 2 - 2 |
| 3. GRADUA | 3 | 3 | 30 | 3 edo gehiago |

**III. IRIZPIDEA - PRESTAKUNTZA TEKNIKOA.**

Lanpostu bakoitzerako ezarritako eginkizunak betetzeko ezagupen egokien jabe izatea neurtzen du irizpide honek, hiru arlo desberdinetan:

A. Prestakuntza gehigarria.

B. Lana betetzeko behar den denbora.

C. Eguneratu beharra, polizia arloko prozesuetan, metodologian, araudietan eta protokoloetan, bai eta zuzendari trebetasunetan ere.

**A. Prestakuntza gehigarria.**

Lanpostua eskuratzeko baldintza gisa erakundeak ezarritako ikastaroak hartzen dira kontuan faktore honetan.

**A.1.** Enpleguen araberako prestakuntza.

Erakundeak ezarritako enplegu bakoitzeko eginkizunak betetzeko langileek jaso duten prestakuntza baloratzen du.

1.1.- Polizia

1.2.- Kaboa

1.3.- Inspektoreordea

1.4.- Inspektorea

1.5.- Komisarioa

1.6.- Komisario nagusia

**A.2.** Prestakuntza, lanpostua eskuratzeko edo/eta mantentzeko baldintza gisa (espezializazioa) (1).

Erakundeak lanpostu bakoitzeko eginkizunak betetzeko eskatzen duen prestakuntza espezializatua baloratzen du.

1.1.- Berariazko prestakuntza ikastarorik gabeko lanpostuak, hura ezinbesteko baldintza izan gabe haiek eskuratu edo/eta mantentzeko.

1.2.- Berariazko prestakuntza ikastaroa, ordukoa…… (2) gehienez ere, behar duten lanpostuak, ezinbesteko baldintza gisa haiek eskuratu edo/eta mantentzeko.

1.3.- Berariazko prestakuntza ikastaroa, ordukoa…… (2) gutxienez ere, behar duten lanpostuak, ezinbesteko baldintza gisa haiek eskuratu edo/eta mantentzeko.

**B. Lana betetzeko behar den denbora.**

Berariazko ezagutzen jabe eginik, lanpostuaren eginkizunak nork bere kasa behar bezala betetzeko behar den denbora baloratzen du.

1.1.- Sei hilabete arte.

1.2.- Urtebete arte.

1.3.- Urtebetetik gora.

**C. Eguneratu beharra, polizia arloko prozesuetan, metodologian, araudietan eta protokoloetan, bai eta zuzendari trebetasunetan ere.**

1.1.- Arrunta.

Poliziaren jarduketak arautzen dituzten protokolo eta araudien kopuru txiki samarra eguneratzea eskatzen du; gainera, gutxi dira haietan eragina duten aldaketak.

1.2.- Handia.

Poliziaren jarduketak arautzen dituzten protokolo eta araudien kopuru handi samarra eguneratzea eskatzen du; horren ondorioz, maizago aldatzen dira dagozkionak.

Bestetik, lanpostu hauek berariazko trebetasun edo gaitasunak izatea eskatzen dute eta, hortaz, etengabe entrenatzera behartzen dute.

1.3.- Oso handia.

Araudien kopuru handi samarra etengabe eguneratzera behartzen du, bai eta protokolo eta prozedurak eguneratu eta hobetzera ere; gainera, birziklatzea, jendearen kudeaketari eta erakundearen helburuen definizioari eta lorpenari dagokienez.

*(1) Atal honi dagokion balorazioa ez da eginen, egun ez baitago erregelamendu bidez ezarrita.*
*(2) Berariazko prestakuntza ikastaroen mugak zehaztu gabe uzten dira, haien erregelamendua egin arte.*

**Balorazio taula.**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A) PRESTAKUNTZA GEHIGARRIA | A.1. ENPLEGUA | POLIZIA | KABOA | INSPEKTOREORDEA | INSPEKTOREA | KOMISARIOA | KOMISARIO NAGUSIA |
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| | A.2. ESPEZIALIZAZIOA | OINARRIZKOA | ERTAINA | HANDIA | | | |
| | | 1 | 2 | 3 | | | |
| B) LANA BETETZEKO BEHAR DEN DENBORA | | < 6 HILABETE | | > 6 HILABETE eta < URTEBETE | | > URTEBETE | |
| | | 2 | | 4 | | 6 | |
| C) EGUNERATZEKO PREMIA | | ARRUNTA | HANDIA | OSO HANDIA | | | |
| | | 1 | 2 | 3 | | | |

| GRADU ESLEIPENA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1. GRADUA | 4 | 1 | 10 | 4 - 5 |
| 2. GRADUA | 6 | 2 | 20 | 6 - 7 |
| 3. GRADUA | 8 | 3 | 30 | 8 - 9 |
| 4. GRADUA | 10 | 4 | 40 | 10 - 11 |
| 5. GRADUA | 12 | 5 | 50 | 12 - 13 |
| 6. GRADUA | 14 | 6 | 60 | 14 - 15 |
| 7. GRADUA | 16 | 7 | 70 | 16 edo gehiago |

**IV. IRIZPIDEA - ZAILTASUNA.**

Dauden baldintzak daudelako, agindutako zereginak betetzeko zailtasun erantsia neurtzen du irizpide honek, ez baleude baino nekosoago egiten baitute haiek betetzea.

A. Zailtasuna baldintza fisikoengatik.

B. Zailtasun operatiboa.

**A. Zailtasuna baldintza fisikoengatik.**

Deserosotasuna edo eragozpenak sortzen dituzten egoera fisiko edo/eta sentsorialek eragindako zailtasuna, zereginari berez dagokionaren gainetik ahalegintzera behartzen duena, hura behar bezala gauzatuko bada. Hala nola, laztasun klimatologikoak, tenperatura aldaketak, usainak, soinuak, bibrazioak, eta abar, ahalegin handiagoa egitera behartzen dutenak.

Lanean zer maiztasunez ematen diren egoera deserosoak edo eragozpenak, horren araberakoa izanen da gradua.

1.1.– Apala.

Lanpostuaren jardun arruntean gutxitan gertatzen dira deskribatutako inguruabarrak. %20 eta %40 artean.

1.2.- Ertaina.

Lanpostuaren jardun arruntean maiz gertatzen dira deskribatutako inguruabarrak. %40 eta %80 artean.

1.3.- Handia.

Lanpostuaren jardun arruntean ohikoak dira zailtasuna sortzen duten inguruabarrak. %80tik gora.

**B. Zailtasun operatiboa.**

Zeregina betetzeko arreta handiagoa edo banatua mantendu beharrak sortzen duen zailtasuna baloratzen du faktore honek; esate baterako, segurtasun arauak eta agindutako lana batera bete beharra.

Irizpide honetatik kanpo daude polizia guztiek berez bete behar dituzten arauak, nork bere armak erabiltzeari buruzkoak.

Irizpide hau bi inguruabarretan banatzen da: zer-nolako segurtasun arauak diren eta zer maiztasunez bete behar diren.

**B.1.-** Zer-nolako segurtasun arauak bete behar diren.

1.1.- Lanak segurtasun arauak zorrotz betetzera behartzen du, ez dadin lan istripurik gertatu; egoera kopuru jakin bat hartzen da kontuan.

1.2.- Lanak segurtasun arauak zorrotz betetzera behartzen du, ez dadin lan istripurik gertatu; egoera kopuru handia hartzen da kontuan.

1.3.- Lanak etengabeko zainketa eskatzen du, akats txikiren batek larritasun handiko istripuak sortuko lituzkeelako.

**B.2.-** Zenbat denboran bete behar diren segurtasun arau horiek.

2.1.- Lanpostuko segurtasun arauak benetako lan denboraren %25ean, gehienez ere, bete behar dira.

2.2.- Lanpostuko segurtasun arauak benetako lan denboraren %25 eta %75 artean bete behar dira.

2.3.- Lanpostuko segurtasun arauak benetako lan denboraren %75ean baino gehiagoan bete behar dira.

**Balorazio taula**

| IV. IRIZPIDEA. ZAILTASUNA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A) ZAILTASUN FISIKOA | | APALA | ERTAINA | HANDIA |
| | | 2 | 4 | 6 |
| B) ZAILTASUN OPERATIBOA | A.1. ZERNOLAKO ARAUA | ZORROTZA/ MUGATUA | ZORROTZA/ HANDIA | ETENGABEA /MUTURREKOA |
| | | 1 | 2 | 3 |
| | A.2. EMANDAKO DENBORA | APALA (<%25) | ERTAINA (>%25 eta >%75) | HANDIA (>%75) |
| | | 1 | 2 | 3 |

| GRADU ESLEIPENA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1. GRADUA | | 1 | 10 | 0 - 2 |
| 2. GRADUA | 3 | 2 | 20 | 3 - 5 |
| 3. GRADUA | 6 | 3 | 30 | 6 - 8 |
| 4. GRADUA | 9 | 4 | 40 | 9 - 10 |
| 5. GRADUA | 11 | 5 | 50 | 11 edo gehiago |

Balioak irizpideei esleitzea.

Irizpide bakoitzaren pisua proportzionala da bere barnean biltzen diren faktoreen kopuruarekin, polizia lanak egiteko horietako bakoitzak duen garrantzi erlatiboaren arabera.

Irizpide bakoitzean eransten diren koadroetan jasotzen dira irizpide bakoitzaren ponderazioa eta haien balio osoa. Eratutako puntuazio sisteman, balio ponderatua, guztira, %100ekoa da, eta gehieneko puntuazioa, berriz, 250.

Erantzukizunaren irizpideak 4 faktore ditu. %40ko balio ponderatua esleitzen zaio, baita 10/10 puntuazioko gradu/tarteak ere, eta gehieneko puntuazioa 100 puntukoa da.

Dedikazioaren irizpideak faktore bat du. %12ko balio ponderatua esleitzen zaio, baita 3/10 puntuazioko gradu/tarteak ere, eta gehieneko puntuazioa 30 puntukoa da.

Prestakuntza teknikoaren irizpideak 3 faktore ditu. %28ko balio ponderatua esleitzen zaio, baita 7/10 puntuazioko gradu/tarteak ere, eta gehieneko puntuazioa 70 puntukoa da.

Zailtasunaren irizpideak 2 faktore ditu. %20ko balio ponderatua esleitzen zaio, baita 5/10 puntuazioko gradu/tarteak ere, eta gehieneko puntuazioa 50 puntukoa da.

## II. ERANSKINA FORUZAINGOKO LANPOSTUAK BALORATZEKO ESKULIBURUAREN APLIKAZIO ARAUAK.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK.

*1. “Prestakuntza Teknikoa” irizpidearen “Prestakuntza Gehigarria” azpifaktorea.*

Kontuan hartuta gaur egun prestakuntza ez dela erregelamendu bidez garatu lanpostua eskuratzekoedo/eta mantentzeko baldintza gisa, harik eta hura garatu arte, “Prestakuntza, lanpostuaeskuratzeko edo/eta mantentzeko baldintza gisa (espezializazioa) izeneko A.2 azpifaktorea baloratuko da berariazko lehiaketa bidez edo lehiaketaz gain proba fisikoak gaindituta hornitzen diren lanpostuetan.

*2. “Dedikazioa”ren irizpidea:*

Kontuan hartuta Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legearen 49 e) artikuluan arautzen diren lanaldien araubide berriaren aplikazioa, eta zer eragin duen balorazioaren eskuliburuan definituta dagoen “Dedikazioa” baloratzeko irizpidean, xedatu da lanaldi berriek indarra hartzen dutenean, dedikazio esklusiboan, guardia lokalizatuta edo lanaldia luzatuta lan egiten duten unitateetan hartuko dela aintzat irizpide horren balorazioa.

## III. ERANSKINA
## TALDEEN ESLEIPENA FORUZAINGOAN

Taldeen taulan Komunikazioko Burutza Taldea 202 Taldean identifikatzen da, Kudeaketarekin, Giza Baliabideekin eta Prestakuntzarekin batera. Dena den, Burutza modu independentean baloratzen denez, berariazko taldetzat hartuko da. Atxilotuak Zaindu eta Lekualdatzeko Taldea ere berariazko taldetzat hartuko da.

| ARLOAK / DIBISIOAK / BRIGADAK / TALDEAK | ENPLEGUA | KODEA | TALDEA |
|---|---|---|---|
| IKUSKAPEN OROKORRA | KOM. NAGUSIA | 100000 | 001 |
| BARNE SEGURTASUNA ETA POLIZIA ADMINISTRATIBOA. | KOM. NAGUSIA | 200000 | |
| TRAFIKOA ETA BIDE SEGURTASUNA | KOM. NAGUSIA | 300000 | |
| HERRITARREN SEGURTASUNA | KOM. NAGUSIA | 400000 | |
| IKERKETA KRIMINALA | KOM. NAGUSIA | 500000 | |

| ARLOAK / DIBISIOAK / BRIGADAK / TALDEAK | ENPLEGUA | KODEA | TALDEA |
|---|---|---|---|
| KOMUNIKAZIOKO ETA LOTURA OPERATIBOKO DIBISIOA | KOMISARIOA | 110000 | 002 |
| DIBISIO TEKNIKO OROKORRA | KOMISARIOA | 120000 | |
| BARNE ARAUBIDEKO DIBISIOA | KOMISARIOA | 130000 | |
| IRUÑEKO FORUZAIN ETXEA | KOMISARIOA | 140000 | |
| TUTERAKO FORUZAIN ETXEA | KOMISARIOA | 150000 | |
| TAFALLAKO FORUZAIN ETXEA | KOMISARIOA | 160000 | |
| LIZARRAKO FORUZAIN ETXEA | KOMISARIOA | 170000 | |
| ZANGOZAKO FORUZAIN ETXEA | KOMISARIOA | 180000 | |
| ELIZONDOKO FORUZAIN ETXEA | KOMISARIOA | 190000E | |
| ALTSASUKO FORUZAIN ETXEA | KOMISARIOA | 190000A | |
| BARNE SEGURTASUNEKO DIBISIOA | KOMISARIOA | 210000 | |
| BIDE SEGURTASUNERAKO DIBISIOA | KOMISARIOA | 310000 | |
| ATESTATUEN ETA IKERKETAREN DIBISIOA | KOMISARIOA | 320000 | |
| PREBENTZIORAKO ETA HERRITARREN ARRETARAKO DIBISIOA | KOMISARIOA | 410000 | |
| AGINTARIAK BABESTEKO DIBISIOA | KOMISARIOA | 420000 | |
| ESKU HARTZEKO DIBISIOA | KOMISARIOA | 430000 | |
| POLIZIA JUDIZIALAREN DIBISIOA | KOMISARIOA | 510000 | |
| POLIZIA ZIENTIFIKOAREN DIBISIOA | KOMISARIOA | 520000 | |
| INFORMAZIO DIBISIOA | KOMISARIOA | 530000 | |

| ARLOAK / DIBISIOAK / BRIGADAK / TALDEAK | ENPLEGUA | KODEA | TALDEA |
|---|---|---|---|
| GARAPEN TEKNOLOGIKOAREN BRIGADA. | INSPEKTOREA | 121000 | 101 |
| BALIABIDEAK ADMINISTRATZEKO BRIGADA | INSPEKTOREA | 122000 | |
| TRAFIKO BRIGADA | INSPEKTOREA | 151000 | |
| INSTALAZIOAK ETA ATXILOTUAK BABESTEKO BRIGADA | INSPEKTOREA | 211000 | |
| SEGURTASUN PRIBATUAREN ETA SISTEMEN BRIGADA | INSPEKTOREA | 212000 | |
| JOKO ETA IKUSKIZUNEN BRIGADA | INSPEKTOREA | 221000 | |
| INGURUMENA BABESTEKO BRIGADA | INSPEKTOREA | 222000 | |
| DELITU EKONOMIKOEN ETA ONDAREAREN KONTRAKO DELITUEN BRIGADA | INSPEKTOREA | 511000 | |
| PERTSONEN KONTRAKO DELITUEN BRIGADA | INSPEKTOREA | 512000 | |
| OSASUNAREN KONTRAKO DELITUEN BRIGADA | INSPEKTOREA | 513000 | |
| LAGUNTZA BRIGADA | INSPEKTOREA | 514000 | |
| LANDA-LANETAKO BRIGADA KRIMINALISTIKOA | INSPEKTOREA | 151000 | |
| LABORATEGIKO BRIGADA KRIMINALISTIKOA | INSPEKTOREA | 522000 | |
| IKERKETA BRIGADA | INSPEKTOREA | 531000 | |
| AZTERKETA ETA TXOSTENEN BRIGADA | INSPEKTOREA | 532000 | |

| ARLOAK / DIBISIOAK / BRIGADAK / TALDEAK | ENPLEGUA | KODEA | TALDEA |
|---|---|---|---|
| AGINTE ETA KOORDINAZIO ZENTROAREN DIBISIOA. | INSPEKTOREORDEA | 110100 | 201 |
| BURUTZA TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 120100 | 202 |
| PRESTAKUNTZA TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 120200 | |
| GIZA BALIABIDEEN TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 120300 | |
| KUDEAKETA ADMINISTRATIBOAREN TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 120400 | |
| POLIZIA ARRETARAKO BULEGOA | INSPEKTOREORDEA | 140100 | 203 |
| GARAPEN TEKNOLOGIKOAREN BRIGADA. | INSPEKTOREORDEA | 121100 | 204 |
| LOTURA TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 121200 | 205 |
| BIDE SEGURTASUNEKO TUTERAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 151100 | 206 |
| BIDE SEGURTASUNEKO TALDEAK | INSPEKTOREORDEA | 310100 | |
| GARRAIO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 310300 | 207 |
| RADAR TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 310200 | |
| ATESTATUEN TUTERAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 151200 | 208 |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO TUTERAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 150100 | 209 |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO TAFALLAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 160100 | |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO LIZARRAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 170100 | |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO ZANGOZAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 180100 | |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO ELIZONDOKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 190100E | |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO ALTSASUKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 190100A | |
| EKINTZA TALDEAK (PREBENTZIOA ETA HERRITARREN ARRETA) | INSPEKTOREORDEA | 410100 | |
| ATXILOTUAK ZAINDU ETA LEKUALDATZEKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 211400 | |
| DELITU EKONOMIKOEN ETA ONDAREAREN KONTRAKO DELITUEN BRIGADA | INSPEKTOREORDEA | 511100 | 210 |
| PERTSONEN KONTRAKO DELITUEN BRIGADA | INSPEKTOREORDEA | 512100 | |
| OSASUNAREN KONTRAKO DELITUEN BRIGADA | INSPEKTOREORDEA | 513100 | |
| LAGUNTZA BRIGADA | INSPEKTOREORDEA | 514100 | |
| LANDA-LANETAKO BRIGADA KRIMINALISTIKOA | INSPEKTOREORDEA | 521100 | |
| LABORATEGIKO BRIGADA KRIMINALISTIKOA | INSPEKTOREORDEA | 522100 | |
| IKERKETA BRIGADA | INSPEKTOREORDEA | 531100 | |
| AZTERKETA ETA TXOSTENEN BRIGADA | INSPEKTOREORDEA | 532100 | |
| LAGUNTZA TEKNOLOGIKORAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 500100 | 211 |
| POLIZIA JUDIZIALAREN TUTERAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 150200 | 212 |
| POLIZIA JUDIZIALAREN TAFALLAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 160200 | |
| POLIZIA JUDIZIALAREN LIZARRAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 170200 | |
| POLIZIA JUDIZIALAREN IPARRALDEKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 510100 | |
| EBALUAZIO ETA IKERKETA TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 130100 | 213 |
| KALITATEAREN ETA DIZIPLINA ARAUBIDEAREN TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 130200 | |
| TUTERAKO INGURUMEN TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 150300 | 214 |
| 1. ETA 2. INGURUMEN TALDEAK | INSPEKTOREORDEA | 222100 | |
| JOKO ETA IKUSKIZUNEN BRIGADA | INSPEKTOREORDEA | 221100 | 215 |
| JUSTIZIAKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 211100 | 216 |
| JAUREGIKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 211200 | |
| PARLAMENTUKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 211300 | |
| SEGURTASUN PRIBATUAREN ETA SISTEMEN BRIGADA | INSPEKTOREORDEA | 212100 | 217 |
| AGINTARIAK BABESTEKO DIBISIOA | INSPEKTOREORDEA | 420100 | 218 |
| ESKU-HARTZE BEREZIETARAKO TALDEA (ESKU-HARTZEA) | INSPEKTOREORDEA | 430100 | 219 |
| ESKU HARTZEKO 1. ETA 2. TALDEAK (ESKU-HARTZEA) | INSPEKTOREORDEA | 430200 | 220 |
| PLANGINTZA OPERATIBOKO TALDEA | INSPEKTOREORDEA | 300100 | 221 |
| BALIABIDEAK ADMINISTRATZEKO BRIGADA | INSPEKTOREORDEA | 122100 | 222 |

| ARLOAK / DIBISIOAK / BRIGADAK / TALDEAK | ENPLEGUA | KODEA | TALDEA |
|---|---|---|---|
| PRESTAKUNTZA TALDEA | KABOA | 120210 | 302 |
| GIZA BALIABIDEEN TALDEA | KABOA | 120310 | |
| KUDEAKETA ADMINISTRATIBOAREN TALDEA | KABOA | 120410 | |
| POLIZIA ARRETARAKO BULEGOA | KABOA | 140110 | 303 |
| GARAPEN TEKNOLOGIKOAREN BRIGADA. | KABOA | 121110 | 304 |
| BIDE SEGURTASUNEKO TUTERAKO TALDEA | KABOA | 151110 | 306 |
| BIDE SEGURTASUNEKO TALDEAK | KABOA | 310110 | |
| GARRAIO TALDEA | KABOA | 310310 | 307 |
| RADAR TALDEA | KABOA | 310210 | |
| ATESTATUEN TUTERAKO TALDEA | KABOA | 151210 | 308 |
| ATESTATUEN ETA IKERKETAREN DIBISIOA | KABOA | 320010 | |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO TUTERAKO TALDEA | KABOA | 150110 | 309 |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO TAFALLAKO TALDEA | KABOA | 160110 | |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO LIZARRAKO TALDEA | KABOA | 170110 | |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO ZANGOZAKO TALDEA | KABOA | 180110 | |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO ELIZONDOKO TALDEA | KABOA | 190110E | |
| HERRITARREN BABESERAKO ETA ARRETARAKO ALTSASUKO TALDEA | KABOA | 190110A | |
| ATXILOTUAK ZAINDU ETA LEKUALDATZEKO TALDEA | KABOA | 211410 | |
| EKINTZA TALDEAK (PREBENTZIORAKO ETA HERRITARREN ARRETARAKO DIBISIOA) | KABOA | 410110 | |
| DELITU EKONOMIKOEN ETA ONDAREAREN KONTRAKO DELITUEN BRIGADA | KABOA | 511110 | 310 |
| PERTSONEN KONTRAKO DELITUEN BRIGADA | KABOA | 512110 | |
| OSASUNAREN KONTRAKO DELITUEN BRIGADA | KABOA | 513110 | |
| LAGUNTZA BRIGADA | KABOA | 514110 | |
| LANDA-LANETAKO BRIGADA KRIMINALISTIKOA | KABOA | 521110 | |
| LABORATEGIKO BRIGADA KRIMINALISTIKOA | KABOA | 522110 | |
| AZTERKETA ETA TXOSTENEN BRIGADA | KABOA | 532110 | |
| POLIZIA JUDIZIALAREN TUTERAKO TALDEA | KABOA | 150210 | 312 |
| KALITATEAREN ETA DIZIPLINA ARAUBIDEAREN TALDEA | KABOA | 130210 | 313 |
| 1. ETA 2. INGURUMEN TALDEAK | KABOA | 222110 | 314 |
| TUTERAKO INGURUMEN TALDEA | KABOA | 150310 | |
| JOKO ETA IKUSKIZUNEN BRIGADA | KABOA | 221110 | 315 |
| JUSTIZIAKO TALDEA | KABOA | 211110 | 316 |
| JAUREGIKO TALDEA | KABOA | 211210 | |
| PARLAMENTUKO TALDEA | KABOA | 211310 | |
| SEGURTASUN PRIBATUAREN ETA SISTEMEN BRIGADA | KABOA | 212110 | 317 |
| AGINTARIAK BABESTEKO DIBISIOA | KABOA | 420110 | 318 |
| ESKU HARTZEKO 1. ETA 2. TALDEAK (ESKU HARTZEKO DIBISIOA) | KABOA | 430210 | 320 |
| PLANGINTZA OPERATIBOKO TALDEA | KABOA | 300110 | 321 |
| BALIABIDEAK ADMINISTRATZEKO BRIGADA | KABOA | 122110 | 322 |
| INSTALAZIOAK ETA ATXILOTUAK BABESTEKO BRIGADA | KABOA | 211010 | 323 |

**IV. ERANSKINA**
**BALORAZIO TAULA, ENPLEGUEN ARABERA ANTOLATUTAKO PUNTUAZIOEN KOADROA ETA LANPOSTUKO OSAGARRIA HANDITZEKO PORTZENTAJEAREN ESLEIPENA FORUZAINGOAN**

# A. Balorazio taula:

| TALDEAK | I. IRIZPIDEA - ERANTZUKIZUNA. A) KUDEAKETAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNA | | B) EKIMENAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNA | | C) PERTSONEN ETA HARREMANEN GAINEKO ERANTZUKIZUNA | | D) ISILPEKO DATUEN GAINEKO ERANTZUKIZUNA | | | | II. IRIZPIDEA. DEDIKAZIOA | | | III. IRIZPIDEA. PRESTAKUNTZA TEKNIKOA. A) PRESTAKUNTZA GEHIGARRIA | | | | | | | IV. IRIZPIDEA. ZAILTASUNA | B) ZAILTASUN OPERATIBOA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A.1. ERAGIN DEZAKEEN KALTEA | A.2. PROBABILITATEA | B.1. ZEREGINEN BARIETATEA | B.2. AUTONOMIA | C.1. HARREMANEN GARRANTZIA | C.2. HARREMANEN ZAILTASUNA | D.1. ISILPEKO INFORM. ESKURATZEKO GRADUA | GUZTIRA | GRADUA | PUNTUAK | II. IRIZPIDEA. DEDIKAZIOA | GRADUA | PUNTUAK | A.1. ENPLEGUA | A.2. ESPEZIALIZAZIOA | B) LANA BETETZEKO BEHAR DEN DENBORA | C) EGUNERATZEKO PREMIA | GUZTIRA | GRADUA | PUNTUAK | A) ZAILTASUN FISIKOA | A.1. ZER-NOLAKO ARAUA | A.2. EMANDAKO DENBORA | GUZTIRA | GRADUA | PUNTUAK | PUNTUAK, GUZTIRA | |
| 001 | LARRIA | HANDIA | OSO HANDIA | OSO HANDIA | OSO HANDIA | OSO HANDIA | HANDIA | 24 | 10 | 100 | OSO HANDIA | 3 | 30 | KOMISARIO NAGUSIA | | > URTEBETE | OSO HANDIA | 15 | 6 | 60 | | | | | 1 | 10 | 200 | K. NAGUSIA |
| 002 | LARRIA | HANDIA | OSO HANDIA | HANDIA | OSO HANDIA | HANDIA | HANDIA | 22 | 8 | 80 | OSO HANDIA | 3 | 30 | KOMISARIOA | | > URTEBETE | OSO HANDIA | 14 | 6 | 60 | | | | | 1 | 10 | 180 | KOMISARIOA |
| 101 | LARRIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | OSO HANDIA | HANDIA | HANDIA | 21 | 7 | 70 | OSO HANDIA | 3 | 30 | INSPEKTOREA | | > URTEBETE | OSO HANDIA | 13 | 5 | 50 | | | | | 1 | 10 | 160 | INSPEKTOREA |
| 201 | LARRIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | ERTAINA | 18 | 6 | 60 | ARRUNTA | 1 | 10 | INSPEKTOREORDEA | OINARRIZKOA | > 6 HILABETE eta < URTEBETE | HANDIA | 10 | 4 | 40 | | | | | 1 | 10 | 120 | AKZ INS-OR. |
| 202 | ERTAINA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | APALA | 15 | 4 | 40 | ARRUNTA | 1 | 10 | INSPEKTOREORDEA | | > 6 HILABETE eta < URTEBETE | ARRUNTA | 8 | 3 | 30 | | | | | 1 | 10 | 90 | PRES/KUD TALDEKO INS-OR. |
| 203 | ERTAINA | ERTAINA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | 18 | 6 | 60 | ARRUNTA | 1 | 10 | INSPEKTOREORDEA | | > 6 HILABETE eta < URTEBETE | ARRUNTA | 8 | 3 | 30 | | ZORROTZA/MUGATUA | APALA (<%25) | 2 | 1 | 10 | 110 | HAB INS-OR. |
| 204 | ERTAINA | ERTAINA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | 18 | 6 | 60 | ARRUNTA | 1 | 10 | INSPEKTOREORDEA | ERTAINA | > URTEBETE | ARRUNTA | 12 | 5 | 50 | | | | | 1 | 10 | 130 | GARAP. TEKNOL. INS-OR. |
| 205 | ERTAINA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | 19 | 6 | 60 | ARRUNTA | 1 | 10 | INSPEKTOREORDEA | | > URTEBETE | ARRUNTA | 10 | 4 | 40 | | | | | 1 | 10 | 120 | LOTURA INS-OR. |
| 206 | ERTAINA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | APALA | 15 | 4 | 40 | ARRUNTA | 1 | 10 | INSPEKTOREORDEA | | > 6 HILABETE eta < URTEBETE | HANDIA | 9 | 3 | 30 | HANDIA | ZORROTZA/MUGATUA | HANDIA (>%75) | 10 | 4 | 40 | 120 | BIDE SEGUR. INS-OR. |
| 207 | ERTAINA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | APALA | 15 | 4 | 40 | ARRUNTA | 1 | 10 | INSPEKTOREORDEA | | > 6 HILABETE eta < URTEBETE | HANDIA | 9 | 3 | 30 | HANDIA | ZORROTZA/MUGATUA | HANDIA (>%75) | 10 | 4 | 40 | 120 | GARR./RADAR INS-OR. |
| 208 | ERTAINA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | 19 | 6 | 60 | ARRUNTA | 1 | 10 | INSPEKTOREORDEA | ERTAINA | > URTEBETE | ARRUNTA | 12 | 5 | 50 | | ZORROTZA/MUGATUA | APALA (<%25) | 2 | 1 | 10 | 130 | ATEST. TUTERAKO INS-OR. |
| 209 | ERTAINA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | APALA | 15 | 4 | 40 | ARRUNTA | 1 | 10 | INSPEKTOREORDEA | | > 6 HILABETE eta < URTEBETE | HANDIA | 9 | 3 | 30 | HANDIA | ZORROTZA/HANDIA | HANDIA (>%75) | 11 | 5 | 50 | 130 | BIDE SEGUR. INS-OR. |
| 210 | LARRIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | 20 | 7 | 70 | HANDIA | 2 | 20 | INSPEKTOREORDEA | HANDIA | > URTEBETE | ARRUNTA | 13 | 5 | 50 | | ZORROTZA/MUGATUA | APALA (<%25) | 2 | 1 | 10 | 150 | BR. NAG. INS-OR. JUDIZ. |
| 211 | ERTAINA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | 19 | 6 | 60 | HANDIA | 2 | 20 | INSPEKTOREORDEA | HANDIA | > 6 HILABETE eta < URTEBETE | ARRUNTA | 11 | 4 | 40 | | ZORROTZA/MUGATUA | APALA (<%25) | 2 | 1 | 10 | 130 | LAGUNTZA TEKNOL. INS-OR. |
| 212 | LARRIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | HANDIA | 20 | 7 | 70 | HANDIA | 2 | 20 | INSPEKTOREORDEA | HANDIA | > URTEBETE | ARRUNTA | 13 | 5 | 50 | | ZORROTZA/MUGATUA | APALA (<%25) | 2 | 1 | 10 | 150 | F. ET. ETA IPAR. INS-OR. |
